



ODIETAKO UDALAK 2024KO UZTAILAREN 11N EGINIKO OSOKO BILKURA BEREZIKO AKTA

Erripan, Odieta Bailaran, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 2024ko UZTAILAREN HAMAIKAN, 9:30ean, behean adierazitako jaunak/andreak ohiko bilkuran bildu dira, legezko eran deituta, Alberto Urdaniz Elizondo alkatea buru dela eta, jarduneko idazkari eginkizunak betetzen, Basaburua eta Imozko udaletako idazkari Lucia Beloqui Iriartek lagunduta.

BERTARATURIKO ZINEGOTZIAK: OIHANE ORRIO REY, ANNE OYARZUN DOMÉÑO, ANE MIREN BUITRON ZAZPE, JUAN PEÑALVER HERMIDA ETA ALBERTO URDANIZ ELIZONDO.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK: IÑAKI GUERENDIAIN AZPIROZ, CAROLINA AZANZA MONTALVO.

Akta hau idazteari dagokionez, Udaleko alkate Urdanizek adierazi du saioa bitarteko elektronikoen bidez grabatuko dela, eta grabazio hori audio-formatuan gordeko dela "Pleno Extr. 11-07-2024" izenekin, USB fitxategi informatiko batean, GRAB PLENOS "izenarekin. Udal-bulegoetan gordetzen da fitxategi hori, eta, bulego horietan, korporazioko edozein kidek edo legeak eskubide hori ematen dion pertsonak entzun ahal izango du.

Beraz, bilera honetako aktaren edukia euskarri horretan jasota dagoenez, akta hau ere paperean idatzi da, Toki Erakundearen Antolaketa eta Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 109. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera. Bertan zehazten denez, Udalbatzaren aktetan honako hau jasoko da:

..... eta beste alderdi batzuk, hala nola, bilkuraren izaera, hori egin den eguna eta tokia, bertaratu diren udalbatzako kideen eta idazkariaren izenak, bozketen emaitza, harturiko erabakien testua eta bilkura hasiera eta bukaera ordua, **"eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritzi laburtuak eta haietako gorabeherak"**,.....

..... hori guztia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. eta 19. artikuluen edukiarekin bat.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Hori dela eta, adieraztea aktan azken alderdi hori jasotzen denean, hau da, “eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak”, laburpen bat da non lehentasuna ematen zaion zehatz-mehatz esaten denaren funtsezkoari esateko moduaren edo hitzez hitzekoaren gainetik (grabazioan jasoa), hori guztia akta irakurtzen duten eta bertan egon ez zirenek hobeki uler dezaten; eta, beraz, lirkeena da hitz zehatzak bat ez etortzea grabazioan esandakoarekin, baina bai jarrerren asmoarekin, zentzuarekin eta funtsarekin.

Udalburuak 9:35ean ireki du ekitaldia, eta gai-zerrendako honako gaiak jorratzen hasi da.

1.- Nafarroako Gobernuari eskatzea Ultzamako Osasun Eskualde Oinarrizkoan profesional pediatra bat izan dezagun hango haurrei zerbitzua emateko.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia komentatu eta azaldu die bertaratuei, urteak direla jada Nafarroan arazoak daudela pediatria plazekin, eta arazoa are larriagoa dela landa-eremuan, plaza horiek ez baitira lanaldi osokoak eta, beraz, aldaketa franko dagoela langileen artean...

Odieta kontzejuetatik (Ostiz, Ziarriz, Anotzibar, Latasa, Erripa eta Gendulain) 6 Ultzamako Osasun Eskualde Oinarrizkoak dira, eta gainerakoak Berriobeitiko osasun eskualdekoak.

Hori dela eta, mozioaren bitartez, Osasun Departamentuari eskatzen zaio konponbideak emateko eta pediatra izendatzeko Ultzama, Lantz, Anue eta Basaburua udalerriek ere osatzen duten osasun eskualde honetarako.

Jarraian, alkateak Ane Buitron Zazpe zinegotziari eman dio hitza, eta adierazi dio ea haren taldeak gaiari buruz interpelatu nahi duen; zinegotzi horren erantzun dio, bere aldetik ez dagoela ekarpenik, ados daudela azaldu denarekin eta proposaturiko mozioaren testuarekin. Hona hemen horren transkripzioa:

Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremua, Anue, Lantz, Odieta, Basaburua eta Ultzamako Udalek osatzen dute, 4000 biztanleko biztanleria du eta despopulazte arriskuan dago.

Oinarrizko zerbitzuen artean, ezinbestekoa da gure osasuna zaindua izatea. Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan bertan, artatuak izateko eskubidea bermatu behar dugu. Hortaz, Osasun-Zentroak, behar diren profesionalak izan behar ditu uneoro. Hala ere, zerbitzu honetan ditugun gabeziak nabarmenak dira. Batez ere, Pediatra postuaren ezegonkortasuna. Egoera horrek segurtasun falta izugarria sortzen du, ez baitakigu noiz egongo den Pediatra eta noiz ez. Ekainaren 20az geroz k, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan, ez daukagu

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Pediatría Zerbitzurik, eta horrek hutsune eta arazo ikaragarria sortzen digu. Iruñeraino joan behar horrek dakartzan eragozpen eta zailtasun guztiekin.

Kontuan izan behar da Oinarrizko Osasun Eremu honetan 0-14 urte bitarteko 400 haur bizi direla. Egoera honen ondorioz, haur eta gazte hauen oinarrizko eskubide unibertsala, osasun zaintza, erabat urratua da.

Arrazoi hauengatik, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko gurasoen kezkekin guztiz bat gatoz.

Hau guztia kontuan hartuta, eta arazoa aspaldi maiz errepikatzen dela ikusita, Odieta Udalak

ERABAKI DU:

1.- Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari eskatzea beharrezko baliabide guztiak jar ditzala Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatría Zerbitzua ahalik eta lasterren martxan egon dadin, une honetan sortutako hutsunea betez.

2.- Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari egoera hori behin betiko ebazteko eskatzea, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatría lanpostua eta zerbitzua egonkortuz eta bermatuz.

3.- Erabaki hau Osasuneko kontseilariari eta Osasun Departamentuari (Oinarrizko Osasun Laguntzaren zerbitzua) helaraztea. "

Mozioa irakurri ondoren, alkateak mozioa bozkatzea proposatu du. Hona hemen horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Orrio, Oyarzun, Buitron eta Peñalver zinegotziek, guztira 5.

Kontrako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: bat ere ez.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondu ondorioetatik, adieraztea erabaki hau hartu dela **Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.**

Hortaz, honako erabaki hau hartu da:

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

ERABAKIA

1.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eskatzea beharrezko baliabide guztiak jar ditzala Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatria Zerbitzua ahalik eta lasterren martxan egon dadin, une honetan sortutako hutsunea betetzeko.

2.- Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuari eskatzea egoera hau behin betikoz konpondu dezala, Ultzamako Osasun Eskualde Oinarrizkoan pediatria lanpostu eta zerbitzua egonkortzen eta bermatzen.

3.- Erabaki hau Osasun kontseilariari eta Osasun Departamentuari (Oinarrizko Osasun Laguntzaren zerbitzua) helaraztea.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, udalburuak bilkura amaitutzat eman du, 9:40ean, eta akta hau egin dut. Eta nik, idazkari naizenez, horren guztiaren fede eman dut.